

# Energia krisia



**KIMETZ ARANA BUTROE**  
BARATZEZAINA

**U**kraina eta Errusiaren arteko gerraren aitzakiapean izugarri azkartu da azken urteetako energia eta erregaien garestitzea. Garraiolarien protestek supermerkatuak husteko beldurrak haizatu ditu jendearengan. Horrela munduko beste tokietan gertatzen denak gure egunerokoa nola baldintza dezakeen ikusi da, agerian utziz deslokalizazioan eta etengabeko mozkinen garraioan oinarritzen den sistemaren ahultasuna.

Horren aurrean estatuetako gobernuak erregaiekiko zergak murriztu eta bonu sozialak ugaritu dituzte. Agintariek ez dute ordea erregaien gaineko prezioetan zein enpresa handien joko arauetan eragiteko ahalik erakutsi, ezta erregai fosilak ordezkatzeko sakoneko proposamenik aurkeztu ere.

Natur baliabideen agortzeak globalizazio aroaren amaiera dakar. Orain arteko ekonomiaren etengabeko hazi beharrak planetaren mugekin egin du topo. Badirudi hemendik aurrera bere beharrak gertutasunean asetzeko gai diren herriak izango direla etorkizuneko

**Estatu-  
gabekoentzat maila  
lokala da eraldaketa  
eta erronka berriei  
aurre egiteko  
esparrurik praktiko  
eta gauzagarriena**

zailtasunei aurre egiteko prestatuenak.

Euskal Herrian sindikatuak langile-riaren ahalmen ekonomikoaren apaltzea salatzen ari dira etengabe. Enpresari-  
Zedarririk foroak berriz EAEko ekonomiaren ahultzeaz ohartarazi du berriki. Guztientzat erronka berriak, al-  
daketen beharrean gaude.

Indiako nekazari-  
bertako gobernuak gauzatu nahi zituen neurri liberalizatzaileak geldiaraztea lortu zuten iaz, milaka langilek urtebetez mantendutako bide eta hiri nagusien blokeo gogor-  
raren ondorioz.

Kurdu-  
ek berriz 2005ean proposatu zuten Konfederalismo Demokratikoa es-  
taturik gabeko pertsonentzako sistema gisa. Haien biziraupena bermatzeko, bu-  
rujabetzan oinarrituz, udalerrietatik ga-  
ratzen ari dira elikaduran, ekonomian, ingurugiroan eta feminismoan bidea egiten duen egitasmoa.

Politika handiak botere ekonomiko-  
rekiko duen menpekotasuna ikusita, es-  
taturik gabekoentzat maila lokala da eraldaketa eta erronka berriei aurre egiteko esparrurik praktiko eta gauzagarriena. Urrunera joan gabe Iparraldean Bizi! elkarteak bultzatuta metamorfosi ekologikorako ituna garatzen ari dira zenbait udalerritan. Agian ildo horretan gehiago sakonduko bagenu lortuko genuke datozen hamarkadetan gure herriaren burujabetzarako indarra eta energia. ●

 ARGIA

**Kazetaritza independentea  
izan dadin, jendearen  
babesa beharrezkoa da.**

**argia.eus/eginargiakoa**

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45

